

Abarak

GORKA BEREZIARTUA

Klitxea luzeegia zen eta ahosabaian itsatsi zitzaidan

Camino. Zuzendaria: Javier Fesser.

Aktoreak: Nerea Camacho, Carmen Elías, Mariano Venancio, Manuela Vellés. Espainia. 143 minutu.

EZ NAIZ NI HASIKO Opus Dei-ren alde hizketan. Ez, ez, inola ere ez. Beraz, argi gera dadila Javier Fesser zuzendariaren azken lana ikusi aurretik edozelako aurreiritzirik baldin banuen, positiboa zela inondik ere. *Camino* filmak Escrivá de Balaguerren sokakoei kritika umoretsua-edo egin nahi die, gaixotasun larri baten eraginez hiltzorian dagoen neska baten (Nerea Camacho) istorioa kontatuz.

Opusen inguruko familia bateko alaba da Camino gaztea; bere ahizpa (Manuela Vellés) numerarioa da; aitak ez du ezer oso garbi ikusten, baina tira, segi; ama fanatiko hutsa da. Neska bere adineko mutil batekin maiteminduko da, Jesús izenekoa. Baina, gaixotasunaren eta amaren esku zitalaren erruz ezinezko amodioaren topikoa berrarragitzen ikusiko dugu.

Pelikularen lehenengo akatsa (kilo)metrajea da. Ez dakit Fesserrek filmari dimentsio biblikoak

eman nahi izan dizkion, ala artaziak kaminoan galdu dituen. Baina horrelako produktu luzeak aretoetara eraman aurretik edozein zuzendarik bere buruari honako kuestioa egin beharko lioke: *Ben Hur*-en mailara iritsiko ote naiz? Zaila baita, istorioa oso ona izanda ere, tentsioari eustea. Eta kasu honetan, uste dut eszena asko baztertzeko problemarik ez zegoela.

Dena dela, filmaren herren handiena Carmen Elías-en pertsonaiak egiten du, amak alegia. Klitxe hutsa da: ultra-atzerakoa, hotza eta gaiztoa. Honen kontra esango da Alexia González-Barros-en egiazko historian oinarrituta dagoela pelikula; errua munduarena dela, fededun fanatikoak sortzeagatik. Ez nago ados: "errealitateak" ez du justifikatzen fikziozko lanetan egindako gehiegikeria. Ze, horrela jarritz gero, filma bera ere "erreal" da, mundu honetakoa den edozer bezala.

Nerea Camachoren lana salbatuko nuke, dena dela: oskola apurtu berri du, baina manerak igartzen zaizkio. Gainontzeko guttia ahosabaian itsatsita geratzen den txikle -barka, klitxe- luzea baino ez da.

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-**

Aukeratu ongietorri oparia



"Kirolaz badakit"
mahai-jolasa



"888 txiste"
liburua



"Txoriak txori"
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

